

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Asturiasko eta Vianako printze-printzesak Musikaren Hiria, Liburutegia eta Nafarroako Filmoteka bisitatu dituzte

*Errege Gorentasunek entzunaldi eta entseguen ikasgelak, irakurketa-kluba, biblioexploratzailak eta kamishibai-ren Nafarroako esperientzia ezagutu dituzte*

Miércoles, 06 de junio de 2012

Asturiasko eta Vianako printze-printzesa Errege Gorentasunek Nafarroara egindako bisitaren barnean, Kulturaren Vianako Printzea Saria Antonio López-i emateko ekitaldia eta Leireko San Salvador monasterioan Nafarroako Erregeei urtero egiten zaion omenaldia dela eta, gaur arratsaldez Musikaren Hiriko, Liburutegiko eta Nafarroako Filmotekako egoitzetara joan dira, Mendebaldea Iruñeko auzoaren alboko eraikinetan daudenak.



Errege Gorentasunak Liburutegia eta Nafarroako Filmoteka bisitatu.

Arratsaldeko bostak aldera, Nafarroak Lehendakari Yolanda Barcinak Errege Gorentasunei harrera egin die Musikaren Hiriko eraikinaren kanpoaldean; bertan haiek agurtu dituzte: Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán-ek; Gobernuako ordezkari Carmen Alba-k; Iruñeko alkate Enrique Maya-k eta Hezkuntzako kontseilari José Iribas-ek.

Jarraian, Errege Gorentasunak Goi Mailako Musika Kontserbatorioko eraikinean sartu dira, eta honako hauen agurra jaso dute: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusi David Herreros; zuzendari nagusiaren alboko Isabel Mendoza; Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza eta Irakaskuntza Artistikoen Zerbitzuko zuzendari Marcelino Arrosagaray; Musikaren Hiriko gerente Pilar Encabo; Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendari Julio Escauriaza; eta Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko zuzendari Santiago Garay Ustáriz.

### Liburutegia-mediatekan eta auditorioan

Errege Gorentasunek kontserbatorioko ibilbideari ekin diote liburutegia-mediateka bisitatu; bertan musika-intereseko zenbait dokumentu prestatu dira. Sergio Barcellona irakasleak eta Arantza Echeverría liburuzainak

ikusgai jarritako dokumentu batzuei buruz hitz egin diete; haien artean aurkitzen ziren: Sebastián Aguilera de Heredia-ren "Canticum beatissimae virginis Deiparae Mariae" obraren faksimile-a; Isaac Albéniz-en "Iberia"-ren faksimile-a; Emilio Arrieta, Hilarión Eslava, Felipe Gorriti edo Agustín González Acilu konpositore nafarrentzako obrak, eta Fernando Remacha nahiz Pablo Sarasate-ren obren jatorrizko partiturak. Ondoren, segizioa ikasgeletara joan da, auditorioan bisita labur bat egin du eta bertako agertokian perkusioko unibertsitateko taldeko bederatzik ikasle entseatzen ari ziren Salvador Tarazona irakaslearen zuzendaritzapean.

### **Bisita entzunaldi eta entseguen ikasgeletatik**

Jarraian, Felipe jauna eta Letizia Andrea sotora jaitsi dira Juan María Guelbenzu entzunaldi-ikasgela bisitatzeko, eta bertan zegoen pianoko irakasle Pascual Jover Amaya Romero ikaslearekin Bals-a F. Chopin-en Op. 34 2.a minorrean interpretatzen.

Horren ondoren, orkestraren entsegu-gelara jo dute, eta bertan orkestrako 40 partaideak Beethoven-en Egmont-en Obertuta interpretatzen ari ziren Vicente Egea-ren zuzendaritzapean. Errege Gorentasunak gainerako interpretazioa entzuteko eseri dira, amaieran zuzendaria agurtu dute, eta azken horrek orkestrari buruzko zenbait azalpen eman dizkie.

Ibilbideak organo-ikasgelan jarraitu du. Han, Raúl del Toro irakaslea Juan Sebastian Bach-en "Preludio y fuga BWV 535" interpretatzen ari zen ikasleari eskola ematen ari zitzaion.

### **Liburutegira eta Nafarroako Filmotekara egindako bisita**


Musikaren Hirira egindako bisita amaituta, printze-printzesa [Liburutegiko eta Nafarroako Filmotekako](#) eraikinera joan dira oinez, atondora, eta bertan honako hauek egin diete harrera: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin; Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegui; Liburutegi Zerbitzuetako zuzendari Fermín Guillorme; Nafarroako Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografia Institutuko zuzendari Koldo Lasa Aristu; eta Nafarroako Liburutegiko buru Juan Francisco Elizari Huarte.

Atondotik, segizioa behe solairutik kontsultagunean dagoen erakusmahai batera abiatu da, eta han ikusgai zegoen, liburutegian egiten diren zenbait funtzio printze-printzesari erakusteko balio izan duten pieza-sorta bat. Dokumentu horien artean, Abraham Ortelius-en "Theatrum Orbis terrarum" pieza zegoen, eta XIX. mendean Nafarroan desamortizatutako funtsen gordailuzain gisa; "Manuscrito de los Estatutos de la Universidad de Irache" ("Iratxeko Unibertsitateko Estatutuen Eskuizkribua") eskuizkribuak Nafarroako bilbiografia-ondarearen funtsio kontserbatzailea eredu adierazten du, edo "La Carcajada" egunkari satiriko ilustratuak bere espezializazioa erakusten du XIX. mendeko Espainiako historia politikoan.

Ordezkaritza erabilera anitzeko aretora joan da, eta han [irakurketa-klub](#)aren saio bat egiten ari ziren 10 pertsona; haiek guztiak Dai Sijie Frantzian bizi den egile txinatarraren "Balzac y la joven costurera china" ("Balzac eta jostun txinatar gaztea") irakurri duten liburuari buruzko iruzkina egiten ari ziren. Taldeko koordinatzaile Sophie Villegas-ek Errege Gorentasunei obraren edukia azaldu die eta taldeko beste kide batek, Enrique Herranz-ek, Felipe jauna eta Letizia andrearekin hari buruzko taldeko iritzi garrantzitsuenak partekatu ditu.

### **Biblioesporetzaileak eta erakusketa**

Handik, Errege Gorentasunak haur-liburutegira joan dira, eta han arduradunak agurtu eta 11 urteko



Errege Gorentasunak Pascual Jover irakaslearekin eta Amaya Romero ikaslearekin solasean.

María Odériz-ek ([biblioesporatzaile](#)en kidea) egiten duten jardueraren inguruan emandako azalpenak arreta osoz jarraitu dituzte.

"Biblioesporatzaileak" liburuzainaren laguntzaile jarduten duten hamar bat ume boluntarioz osatutako talde bat da. Biblioesploratzaile-txartela lortzeko haurrak astean behin joan behar dira liburutegira hilabetez, eta lau proba gainditu, María Odériz-ek printze-printzesari azaldu dienez: liburuen orientazioa apaletan; bilaketa (liburutegiko katalogoa erabiltzen ikastea); datu-bilketa (bibliografia-fitxak egiten ikastea); eta ikerketa (apaletako liburuen artean informazioa bilatzea). Peto gorri batekin identifikatzen dira.

Printzeak galdetu die ea inoiz erabiltzaileei kontuak eskatu behar izan dieten, eta liburuzainak erantzun dio zenbaitetan isiltzeko agindua eman behar izan diela-

Jarraian, Errege Gorentasunak satora jaitsi dira "La memoria de la memoria" ("Memoriaren memoria") erakusketa ikusteko. Bilduma horretan, Nafarroako 1912an Tolosako Naben batailaren VII. Mendeurreneko ospakizunak jasotzen dira, eta bertan izan zen, hain zuzen, Alfonso de Borbón Gorentasuna Felipe jaunaren aitona

"La memoria de la memoria, 1212-1912" ("Memoriaren memoria, 1212-1912") izeneko erakusketa horretan, bisita bi beira-arasatan oinarritu da: lehenengoan, Gorentasunak Diputazioko Akta Liburua ikusi dute, eta horrek ospakizun haren testuingurua azaltzeko balio izan du.

Mahastizaintzako Kongresu Nazionalari buruzko bigarren beira-arasak, 1912an Nafarroan ospakizunaren programako ekitaldi nagusi bat bezala ospatu zena, [Alfonso XIII.ak Nafarroara egindako bisitaren ikus-entzunezko](#)a sartzeko balio izan du, Nafarroan filmatutako zinema-dokumentu zaharrena dena eta egun kontserbatzen dena.

### **Kamishibai kontaktak**

Erakusketatik, segizioa ekitaldi-aretora joan da *kamishibai* saio bat ikusteko, hau da, irakaskuntza moralen ipuin-kontaktaren jarduera japoniarra (paperezko antzerkitxoan), eta jatorria XII. mendean Japoniako tenplu budistetan duena.

Iruñeko San Juan de la Cadena ikastetxe publikoko ikasle, irakasle eta gurasoen laguntzarekin (ikastetxe hori nazioarte-mailan ezagutzera eman da *kamishibai*-a erabiltzen duten proiektu didaktikoak egiteagatik), Felipe jaunak eta Letizia andreak ipuin-kontakteta entzun dute, eta hura izan da egindako bisitaren azken jarduera.

Carmen Aldama irakasleak kontakteta zuzendu du *butay*rekin batera (irudien euskarria), eta haren inguruan saioa ikusten ari zen 8-11 urte bitarteko 15 haurren talde bat bildu da. Bertan aurten zortzigarren mendeurrena ospatzen duen Tolosako Naben batailako historia kontatu da.

Printzeak kontatzeko era hori nola ezagutu duten jakin nahi izan du eta Aldama irakasleak aipatu du irakasle japoniar baten amaren bitartez izan zela, 2002an. Adierazi dio, gainera, harrezkero, teknika hori lantzen hasi zirela eta 2005etik, kamishibai teknikarekin proiektu didaktikoak aurkeztu dituztela Nafarroa guztian.

OHARRA: <http://vimeo.com/43523584> helbidean Alfonso XIII.ak 1912an Iruñera egindako bisitaren bideoa ikus daiteke, Tolosako Naben VII. Mendeurrena dela eta.

### **Galería de fotos**






Errege Gontasunak Musikaren Hirira iritsi ondoren.



Errege Gontasunak liburutegia-mediatekaren erakusketa bisitatzen.



Errege Gontasunak Pascual Jover irakaslearekin eta Amaya Romero ikaslearekin solasean.



Errege Gontasunak orkestraren entsegua jarraitzen.



Errege Gontasunak orkestrako partaideak agurtzen.



Errege Gontasunak perkusio-taldeko partaideekin.



. Errege Gontasunak, Liburutegi eta Nafarroako Filmoteka aldera joaten.



Errege Gontasunak Liburutegiko pieza-sorta bat bisitatzen.



Errege Gontasunak irakurketa-klubeko kideak agurtzen.



Errege Gontasunak biblioexploratzailen talde bat agurtzen.



Errege Gontasunak irakurketa-



klubeko partaideekin.



Errege Gorentasunak "La memoria de la memoria" erakusketa bisitatzen.

Errege Gorentasunak  
biblioesploratzaileen taldearekin.



Errege Gorentasunak kamishibai-  
ikusten ari ziren hurrekin.

Errege Gorentasunak kamishibai-  
ikusten ari ziren hurrekin solasean.